

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### Behin betiko onartzea 2020ko aurrekontua, plantilla eta zinegotzien dedikazio partzialak

Ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, Toki erakundeen aurrekontuei buruzko Foru Arauak 15.artikuluaren xedatutakoarekin bat etorriz, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

#### AURREKONTUA

DIRU SARRERAK	EUROAK
1. Zuzeneko zergak	1.063.143,61
2. Zeharkako zergak	50.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	401.764,00
4. Transferentzia arruntak	1.428.518,00
5. Ondare sarrerak	398.810,91
6. Inbertsio errealak besterentzea	180.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.522.236,52</b>

GASTUAK	EUROAK
1. Langile gastuak	592.326,90
2. Ondasun arruntak erostea eta zerbitzuak	1.647.988,47
4. Transferentzia arruntak	562.775,94
6. Inbertsio errealak	457.145,21
7. Transferencias de capital	262.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.522.236,52</b>

#### KORPORAZIOKO KIDEEN ORDAINSARIAK ETA ESLEIPENAK

– Alkate-lehendakaria: lanaldi partziala, ehuneko 73koa, eta urteko ordainsaria 35.873,60 euro (2015eko uztailearen 9ko udalbatza).

– 2. alkateorde Inma Elorza Bergara: ehuneko 50eko dedikazio partziala 2020ko martxoaren 1etik, berdintasun eta kultura arloko arduradun gisa, 15.044,55 euroko urteko ordainsariarekin (2020ko urtarrilaren 29ko osoko bilkura).

– Itziar Mendia Celaa zinegotzia; ehuneko 20ko dedikazio partziala 2020ko martxoaren 1etik, hezkuntza eta gazteria arloko arduraduna den aldetik, eta urteko 6.194,81 euroko ordainsaria (2020ko urtarrilaren 29ko osoko bilkura).

– Indemnizazioak: zinegotziei, osoko bilkuretara joateagatik: 50 euro, bestelako organo kolegiatuak, batzordeak, bilerak edo bere karguak dakartzan jardueren dedikazioa: 41,86 euro (hiru ordura arte) eta 66,54 euro hiru ordutik gora.

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dena den, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, nahi izanez gero, berraztertzeorrekurtsua aurkeztu ahal izango zaio udalari, aipatutako erabakiaren aurka. Horretarako, hilabete izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgia, 2020ko martxoaren 5a

*Alkate-lehendakaria*

**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**